PREKARIETATEARI STOP



# BIZKAIKO ERRESIDENTZIAK
# RESIDENCIAS DE BIZKAIA

#ErresidentziakBorrokan

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

# CARTA ABIERTA A LA CIUDADANÍA DE BIZKAIA

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

**La Diputación Foral de Bizkaia financia más del 70% de las plazas residenciales en Bizkaia y es la responsable de la calidad asistencial**

Las trabajadoras de las Residencias y centros de Día de Bizkaia hemos iniciado el 8 de marzo un nuevo periodo de huelga y movilizaciones. Llevamos ya un año de conflicto y más de 110 días de huelga en defensa de la dignidad laboral y la calidad asistencial en las residencias de Bizkaia.

El objeto de este escrito es explicarte nuestra pelea y recabar tu apoyo y solidaridad. Porque nuestra lucha, al contrario de lo que la Diputación de Bizkaia afirma, no es un asunto estrictamente laboral. Está en juego el modelo de dependencia presente y futuro en una sociedad cada vez más envejecida. Actualmente, el 21% de la sociedad vizcaína tiene más de 65 años; para dentro de una década, será el 26,5%. Así las cosas, la Diputación Foral de Bizkaia, hoy por hoy, no garantiza un servicio de cuidados a la dependencia público, universal y de calidad.

## UNAS REIVINDICACIONES MUY BÁSICAS

Las más de 5.000 trabajadoras de las Residencias y Centros de Día de Bizkaia no pedimos el oro y el moro. Nuestras reivindicaciones son muy básicas, y se pueden resumir en cuatro puntos: jornada laboral de 35 horas, que redundará en las cargas de trabajo y la calidad asistencial; más personal (mejora en los ratios), partiendo de la base de que en las residencias públicas hay el doble de personal que en las privadas; alcanzar los 1.200 euros de salario, trabajando a relevos y festivos, y mejorar la cobertura en caso de baja.

## NEGOCIO REDONDO PARA LOS “AMIGOS”, Y MÁS DURANTE LA HUELGA

Sin embargo, las patronales del sector no quieren negociar. Están muy cómodas con la situación actual. Con una Diputación que les da cobertura, que les garantiza unos enormes beneficios y que sigue pagándoles lo mismo por un servicio que no están proporcionando durante la huelga: se calcula que entre el salario que han retraído a las huelguistas y lo que han recibido “por nada” de Diputación, las residencias han ganado cuatro millones de euros más. Hablamos de dinero público “regalado”... y aquí no pasa nada.

## EL PROBLEMA ES QUE SOMOS MUJERES

Otra cara de este conflicto es que tiene rostro de mujer. No es casualidad que nuestro trabajo, el de cuidados, esté poco valorado e, incluso, invisibilizado. A las instituciones se les llena la boca hablando de igualdad, paridad, equidad, conciliación... En la práctica, queda en pura demagogia.

## CRIMINALIZACIÓN DE LA HUELGA Y LAS HUELGUISTAS

A raíz de la lucha de las trabajadoras de las residencias, los familiares de los residentes han decidido organizarse y apoyar nuestras reivindicaciones de manera activa. Las familias, que conocen el día a día en los centros, apoyan nuestra pelea, y están sacando los colores a una Diputación que ha tenido la desfachatez de acusar a las trabajadoras de maltratar a las ancianas/os con su huelga.

**Maltrato son los servicios cronometrados (7 minutos por usuario para levantarle y asearle; 3 para cambiarle de pañal, 3 veces al día, como máximo...). Maltrato es que por la noche sólo haya una gerocultora para cubrir dos plantas. Maltrato es no tener tiempo para sentarte con una anciana/o a escucharle o tenderle la mano... No se han enterado de que tratamos con personas, que sienten y padecen. Y ésa es la realidad diaria de cualquier residencia en Bizkaia. En huelga (con unos servicios mínimos entre el 80 y 100%) y sin huelga.**

## LA DIPUTACIÓN TIENE LA SOLUCIÓN

La Diputación de Bizkaia tiene en su mano la solución a este largo conflicto. Es ella la que pone las condiciones de licitación. Es ella la que marca las bases con las que se presta el servicio. Es ella -junto a las familias- la que paga, mayoritariamente, este servicio. Es ella -con el gobierno vasco- la que establece los ratios personal-usuarios...

Es una absoluta irresponsabilidad que la Diputación pretenda inhibirse cuando es juez y parte. Por todo ello, señalamos a Unai Rementería, en cuanto diputado general, como máximo responsable de esta situación, y le exigimos que se siente a negociar un acuerdo que garantice la dignidad laboral y personal en las residencias de Bizkaia. A trabajadoras y a usuarios/as.

**Falta escandalosa de personal, servicios cronometrados, jornadas agotadoras, disponibilidad absoluta, contratos a tiempo parcial, salarios de 1.000 euros...**
**Ésa es la realidad diaria de las trabajadoras de las Residencias privadas de Bizkaia**

**Beneficios millonarios -y más en periodo de huelga- y apoyo incondicional de la Diputación. Ésa es la realidad de las patronales de Residencias... a costa de la precariedad de sus trabajadoras y del servicio asistencial que se presta**




# BIZKAIKO ERRESIDENTZIAK
# RESIDENCIAS DE BIZKAIA

#ErresidentziakBorrokan

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

## BIZKAIKO HERRITARRENTZAKO GUTUN IREKIA

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

**Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko egoitza-plazen %70 baino gehiago finantzatzen du, eta bera da arreta-kalitatearen erantzulea**

Bizkaiko Egoitzetako eta Eguneko Zentroetako langileok berriro ekin diegu grebari eta mobilizazioei martxoaren 8an. Gatazka honetan urtebete daramagu, eta 110 greba-egun baino gehiago eginak, Bizkaiko egoitzetako lan-duintasunaren alde, eta arretaren kalitatearen alde.

Idazki honen helburua gure borroka zeuri azaltzea da, eta baita zure sostengua eta elkartasuna eskatzea ere. Gure borroka ez da soilik lan-arlokoa, Bizkaiko Aldundiak hori esaten badu ere. Kolokan dagoena ez da huskeria: gure nagusientzako arretaren kalitatea, eta gizarte zahartu baten oraingo eta geroko menpekotasun-eredua. Gaurko Bizkaiko gizartean 65 urtetik gorakoak %21 dira, hamar urte barru %26,5 izango dira. Hori horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du bermatzen menpekoentzako zainketa-zerbitzu bat, publikoa, unibertsala eta kalitatezkoa.

### GURE ESKAKIZUNAK OSO OINARRIZKOAK DIRA

Bizkaiko Egoitzetako eta Eguneko Zentroetako 5.000 langileok ez ditugu eskatzen direnak eta ez direnak. Gure eskakizunak oso oinarrizkoak dira, eta lau puntutan laburbildu daitezke: 35 orduko lanaldia, eta horrek lan-kargak eta arreta-kalitatea hobetuko ditu; pertsonal gehiago (ratioak hobetu), kontuan hartuz egoitza publikoetan pertsonal bikoitza dagoela, pribatuetan baino; 1.200 euroko soldatara iristea, txandaka eta jai-egunetan lan eginez; eta bajetan estaldura hobetu.

### NEGOZIO BOROBILA “ADISKIDEENTZAT”, ETA ARE BOROBILAGOA GREBA-ALDIETAN

Hala ere, sektoreko patronalek ez dute negoziatu nahi. Oso eroso sentitzen dira oraingo egoeran. Aldundiak babesa ematen die, etekin itzelak bermatzen dizkie, eta grebaldian ere berdin ordaintzen die, zerbitzurik eman ez arren. Egindako kalkuluen arabera, batetik langileei ordaindu ez dizkieten soldatak, eta bestetik aldundiaren “oparia”; guztira, egoitzek lau milioi euro gehiago irabazi dute greba bitartean. Eta hemen ez da ezer gertatzen.

### ARAZOAREN MUINA: EMAKUMEAK GARELA

Gatazka honek emakume-aurpegia du. Gure lana, zainketak, gutxi baloratua egotea, eta batzuetan ikusezina ere izatea, ez da txiripa hutsa. Erakundeek aho betean aldarrikatzen dute berdintasuna, parekotasuna, zuzentasuna, kontziliazioa... baina gero, egiaren orduan, demagogia baino ez dela ikusten da.

### GREBA ETA GREBALARIAK KRIMINALIZATU

Egoitzetako langileen borroka ikusita, egoiliarren senideek ere erabaki dute gure eskakizunei eustea, gogotik eutsi ere. Senideek, egoitzetara sarri-sarri doazenez, badakite zer gertatzen den barruan, eta gurekin daude, eta aldundiaren lotsagabekeria salatu dute, aldundia gure grebaren erruaz zaharrak gaizki tratatzeaz gu akusatzera ausartu baita.

**Gaizki tratatzea da erlojuz kontrako zerbitzuak (7 minutu erabiltzaile bakoitzeko, jaten emateko edo garbitzeko; 3, troxa edo maiola aldatzeko; eta 3 aldiz egunean gehienez ere...). Gaizki tratatzea da gauez gerokultore bakar bat egotea bi solairutan zelatan. Gaizki tratatzea da adineko pertsona baten ondoan egoteko astirik ez izatea, entzuteko, eskua hartzeko... Zeren sentitzen eta jasaten duten pertsonak dira. Eta hori da Bizkaiko edozein egoitzatako eguneroko errealitatea. Greban (gutxieneko zerbitzuak %80 eta %100 bitartekoak) eta grebarik gabe.**

### KONPONBIDEA ALDUNDIAREN ESKU DAGO

Bizkaiko Aldundiak giltza dauka gatazka luze honi amaiera emateko. Hark berak jartzen ditu lizitazio-baldintzak. Berak markatzen ditu zerbitzua emateko oinarriak. Berak —familiekin batera— ordaintzen du zerbitzua. Berak —Eusko Jaurlaritzarekin batera— ezartzen ditu pertsonal/erabiltzaile ratioak.

Arduragabekeria galanta da Aldundia iheska ibiltzea, zuzeneko partaidea izanik. Horregatik guztiagatik Unai Rementeria da —ahaldun nagusia denez— egoera honen erantzulea, eta exijitzen diogu akordio bat negoziatzeko, Bizkaiko egoitzetako duintasuna —lanekoa eta pertsonala— bermatzearren, bai langileei, baita erabiltzaileei ere.

**Pertsonalaren eskandaluzko eskasia, erlojuz kontrako zerbitzuak, erabateko prestasuna, lanaldi partzialeko kontratuak, 1000 euro inguruko soldatak... Horixe da Bizkaiko egoitzetako langileen errealitatea**

**Egoitzetako patronalen errealitatea, ordea, oso bestelakoa da: milioikako etekinak eta aldundiaren babes osoa. Langileen prekarietatearen eta ematen den zerbitzuaren kontura**